

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Erramun Salaberria Lopetegi

*Lezo, Gipuzkoa
(1927-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Lezoko Lopene baserrian jaio zen. Aita Lopene bertakoa zuen eta ama berriz goragoko Borda baserrikoa. Umetan hasi zen baserriko lanetan eta baita harrobian ere. Baserriko lurretan harrobia zutenez, harria ateratzen zuten anaiak, aita eta hirurek, eta geroago Lezon etxeak egiten zebiltzan kontratistei saltzen zizkieten. Erabilera asko izan zituen harrobian saltzen zuten harriak. Karobia ere bazuten, baserriko terrenoetarako egiten zuten karea. Aita bertsotan aritzen zen, tarteka barrikoteak antolatzen zituen lagun kuadrillarekin baserrian eta Erramun ere han izaten zen hango bertso eta kanta giroan. Aitona ere bertsolaria zen. Erramun, Lezoko Atxaneko txapa-fabrikan aritu zen lanean lehendabizi, Pasai Donibaneko Meipin arrain deskargan ere bai eta Errenteriako Papeleran bi urtez. Baina urte gehienak berak gustukoen duen langintzan pasa ditu, baserrian. Erramunek berrogei bat urte zituela Lopene baserria bota egin zuten fundizioa jartzeko Orbegozok lurak erosi zizkienean. Gero, Algeposak erosi zuen, eta portuko almazena jarri zuen bertan. Erramunen familiak etxe bat egin zuen beheraxeago, eta han bizi da ilobarekin.

Zintak

LEZ-021

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2009-11-20
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

LEZ-051

- **Proiektua:** Lezoko hizkeraren grabaketak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirretxe Mitxelena, Joxe Luix - Esnaola Arbiza, Imanol
- **Data:** 1997-12-04
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Txerria hiltzen zutenekoa

- **Erref:** LEZ-021/003
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Urtero txerria hiltzen zuten etxean, San Martin egun inguruan. Txerrikiak nola kontserbatzen zituzten azaltzen du.

2. Sagardoa egiteko prozesua

- **Erref:** LEZ-021/004
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:05:57. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Lurrak lantzen zituzten. Sagastiak bazituzten eta sagardoa egiten zuten, baita kalerako ere. Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du.

3. Karea egiteko prozesua

- **Erref:** LEZ-021/005
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

Karea lehen nola egiten zuten azaltzen du. Karea egiteko edozein egur erabiltzen zen eta harria beraien harrobitik ekartzen zuten.

4. Harrobitik harria ateratzeko prozesua

- **Erref:** LEZ-021/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:11:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Harrobia zeukaten eta harria tiroz ateratzen zuten bertatik. Harria ateratzeko prozesua azaltzen du.

5. Harrobiko harria saltzen

- **Erref:** LEZ-021/007
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Harrobitik ateratzen zuten harria gurdian eramaten zuten kalera, saltzeko. Harri hura zertarako erabiltzen zen azaltzen du. Beraien harrobia noiz sortu zen aipatzen du. Beraiek egunero egiten zuten lan harrobian eta eguraldi txarra egiten zuenean joaten ziren eskolara.

6. Sagardo asko egiten zuten

- **Erref:** LEZ-021/011
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:21:14. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardo asko egiten zuten lehen eta nori saltzen zioten aipatzen du.

7. Aitak antolatutako barrikoteak

- **Erref:** LEZ-021/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:25:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Lezoko sagarra oso ona zen sagardoa egiteko. Etxerako egiten zuten sagardoarekin barrikoteak antolatzen zituen aitak. Barrikote haietako giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

8. Gaubeilako giroa

- **Erref:** LEZ-021/016
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:34:47. **Bukatu:** 00:36:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Lehen norbait hiltzen zenean izaten ziren ohiturak aipatzen ditu: gaubeilan txiste-kontari aritzen ziren, kafea eta pastelak jaten zituzten...</p>

9. Herriko jaietako ohiturak

- **Erref:** LEZ-021/017
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:38:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Herriko jaiak zirenean, lanik ez zuten egiten, mezara joaten ziren, bazkari berezia izaten zuten, plazan feria ona egoten zen...</p>

Transkripzioa

- Eta, hemen, jaiak eta ere ingo zien klaro herriko jaiak eta, Santa Krutzak...

- Onbre, bai hoi bai, orduan herriko jaitan ta hoi bai jaiak orduan ta lanak'e ahal bada... ganauan maskak eta holakuak bezperan ekarri orduan, herriko festaik bagenun ba jai.

- Jai. Ta ze iten zenuten, herrira jetxi, kalea jetxi?

- Herrira jetxi. Geo [...] meza zeon, oan Santa Krutzetan izaten da /izatea/ baiño orduan meza izaten zen hamarretan. Ta ordun bakizu, gaur baiño txintxoxio jon'e iten zien ta -gu behintzat gaztiak bai, biali iten ziguten- ta hamarretako mezara, ta geo handik atea, fiestara, ordubat edo ordubata terdik arte edo, fiesta [...]. Gaur biño dotoriaguk eta, ordun fiestak eta. Geo bazkaldu, etxea etorritako [...] bazkaia, orduan banketia ibiltzen genun. Orduan, bueno, orduan oillaskua ta arroza ta hoik jan ezkeo orduan banketia zen! Gaur harekin ibiltzen gea, egunero jaten dittugu hoik biñon [...] orduan ta ilusiyua hoixe zen, ilusiyua hoixe.

- Bai. Eta mezatik atea ta han plazan, Lezoko plazan o ze izaten zan, musika edo...?

- Musika're ez... generalian...

- Nola izaten zan?

- Oango...oan'e itten da ohittura hoi ta generalian bakizu karga-jasotzaillia ta aixkolai ta...Soiñua [...] ez zan soñua izaten hola. Ikuskizuna behintzat. Goiko...Beheko plazan'e hasi oiñ estankoko hortan ta bueltan han beheko kamiyuako kantoi hartaiño dena erremintaz ta baserriko erremintaz ta dena betia eoten zen hoi, dena! Beste bista bat eoten zen ordun! Beste... bai, gaur ez da eze izaten, gaur dantza ta besteik ez da. Baiña orduan ikuskizun ona izaten zen.

- Feriya o hola iten zan.

- Feriya bai, ona gaiñea. Hola izaten zien.

- Ta ze iten zenuten han behar zenituzten erramientak eta erosi?
- Bai nahi zenuna, nahi zenuna erosi'e han egoten zien, nahi zenuna erosi orduan jendiak bai... biñon bazien ekartzen zittuztenak.

10. Tolosako feria

- **Erref:** LEZ-021/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:38:57. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Lehen astelehenetan baserritarrak feriara joaten ziren Tolosara. Feria hura ona izaten zen, ganadu ona ekartzen zuten handik, egun-pasa egiten zuten... Erramun bera joan ohi zen Tolosako feriara.

11. Baserria kendu eta fabrika jarri

- **Erref:** LEZ-021/021
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:43:05. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Lopene baserria bota egin zieten fundizio-fabrika jartzeko. Lurrak saltzera derrigortu zituztenekoa azaltzen du. Denborarekin fabrika handitzen joan zen.

12. Lezoko gazteriaren bilerak eta erromeriak

- **Erref:** LEZ-021/024
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:56:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gaztetan bileratara joaten ziren: Txiki Erdira, Oialumera... Lezon bertan ez zegoen erromeriak egiteko ohiturarik, beti kanpora joan ohi ziren.

13. Lezon Nafarrak sartu zirenekoa

- **Erref:** LEZ-021/027
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:01:36. **Bukatu:** 01:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Lezon gerra garaian izandako gertaerak aipatzen ditu: Nafarrak Lezon sartu zirenekoa, tiroak, leihoetan koltxoak jarri zituzten...

14. Gerrako bidegabekeria ulergaitzak

- **Erref:** LEZ-021/029
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:05:13. **Bukatu:** 01:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerran ama bat eta haren hiru seme fusilatu zituzten, ikurrina zeramalakoa.

15. Lopene baserria

- **Erref:** LEZ-051/002
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:01:01. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lopene baserriari buruzko azalpenak. Lopene eta Barunga baserriak bota egin zituzten Orbegozo lantegia egiteko. Iturritxo iturria. Bederatzi senide bizi izan ziren Lopenen. Baserria aitonak erositzen zen.

16. Lopeneko dolarea eta sagastiak

- **Erref:** LEZ-051/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Lopene baserriak dolarea zeukan. Sagasti asko zuten. 100 karga (karga bakoitza sei zakukoa izaten zen) bildutako urteak izan zituzten.</p>

17. Sagardoa egiteko sagar motak

- **Erref:** LEZ-051/004
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa egiteko zer sagar mota erabiltzen zituzten: patzolua, mozolua, txalaka, gazia... Ez du Lezo sagarraren aditzerik.

18. Kanporako sagardoa egin

- **Erref:** LEZ-051/005
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:05:12. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Lopene baserriak dolarea zeukan. Ez zuten sagardorik saltzen baserrian bertan, ez zen sagardotegia; Lezoko eta Errenteriako taberna eta etxeetarako egiten zuten sagardoa.

19. Karlia

- **Erref:** LEZ-051/006
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Sagardoa karlian, gurdian hartuta, garraiatzen zuten. Karliak nolakoak ziren azaltzen du. Idi edo behiekin ibiltzen ziren gurdian.

20. Sagar karga

- **Erref:** LEZ-051/007
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Ez dauka gogoan zenbat sagardo egiten zuten, baina asko izaten zela dio. Etxeko sagarraz gain, kanpotik ere ekarri izan zuten. Neurria: sagar karga, sei zakuk osatzen zuten.

21. Sagardoaren prezioa

- **Erref:** LEZ-051/008
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:08:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoaren prezioa, sagarraren balioaren konformidadean. Aitak eta anaiak eramaten ziztuzte kontu horiek.

22. Lezoko dolareak eta sagardotegiak

- **Erref:** LEZ-051/009
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:08:54. **Bukatu:** 00:10:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Lezoko sagardotegiak: Bordatxo eta Tximitxu-ene edo Txerrimuño. Dolareak zituzten baserriak: Bordatxo, Lopene, Olazar eta Txatxamendi.

23. Lopene: baserriaren deskribapena

- **Erref:** LEZ-051/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:10:14. **Bukatu:** 00:11:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Lopene baserria nolakoa zen azaltzen du. Beheko solairuan: sukaldea, ukuilua, dolarea eta kupel eta edarientzako gela. Goiko solairuan: logelak, dolareko gela handi bat (sagarra botata egoten zen bertan). Goian: ganbara.

24. Etxeko azienda

- **Erref:** LEZ-051/011
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:11:39. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Sei behi, oiloak, txerria, astoa, akuri eta untxiak zeuzkaten Lopenen. Txakur pare bat eta katuak ere izaten ziren.

25. Fruta, denetik eta asko

- **Erref:** LEZ-051/012
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:12:48. **Bukatu:** 00:13:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Lopene baserrian fruta asko eta denetik biltzen zuten: melokotoiak, udareak, gereziak, aranak, sagarrak, muxikak...</p>

26. Ganbara, urteko uzta gordetzeko

- **Erref:** LEZ-051/013
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:13:23. **Bukatu:** 00:13:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Ganbaran urteko uzta gordetzen zuten: artoa, patata eta baba.

27. Baserriko tresnak

- **Erref:** LEZ-051/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:13:38. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Baserriko lanetan erabiltzen zituzten tresnak: goldea, area, aitzurra, sega, higitia, "gozpala" (gorotzak ateratzeko erabiltzen den pala), "arrastalua" (eskuarea)...

28. Lurra ongarritzea

- **Erref:** LEZ-051/015
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:15:18. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Lurra ongarritzeko simaurra, gorotza erabiltzen zuten. Soroetan eta zelaian botatzen zuten simaurra. Belar-soroetan hautsa ere botatzen zuten.

29. Karobia eta karea

- **Erref:** LEZ-051/017
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

Lopene baserri ondoan karobia zuten. Karea nola eta noiz egiten zen azaltzen du. Lurra ongarritzeko, karea botatzen zuten udaberrian.

30. Barungoko erreka, arropa garbitzera

- **Erref:** LEZ-051/018
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:17:59. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Lopenen ez zuten garbilekurik. Errekara joaten ziren arropa eskuz garbitzera. Barungoko erreka.

31. Sukaldeko eltze eta ontziak

- **Erref:** LEZ-051/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:19:09. **Bukatu:** 00:20:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Sukaldeko eltze eta ontziak nolakoak izaten ziren. Tupina, lurrezko eltzea.

32. Aitona, bertsolaria

- **Erref:** LEZ-051/024
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:21:59. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Erramunen aitona, Joxe Manuel Salaberria, bertsotan aritzen zen. Gabonetan kuadrillarekin, bikarioaren etxean, baserriko zereginetan aritzen zenean... bertsotan aritzen omen zen.

33. Sorginei buruzko kontuak

- **Erref:** LEZ-051/025
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:22:57. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Lopene baseritik gertu, bazen zulo txiki bat. Umetan kalera enkargutara joaten zirenean, goiz bueltatzeko esaten zien bestela zulotik sorginak aterako zirela. Zulo ingurutik ikaratzen pasatzen ziren.

34. Etxeko lursailei jarritako izenak

- **Erref:** LEZ-051/027
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:24:11. **Bukatu:** 00:25:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Etxeko lursail eta terrenoei jartzen zizkien izenak: luberri berri, erribera, kamiñondo, barrote haundi, goiko zelaia, gaztandegia, sagardi gazte...

35. Inaurkina

- **Erref:** LEZ-051/030
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:27:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ganaduaren azpiak egiteko iratzea ekartzen zuten Jaizkibeldik, kosta gaineko iratze-lekuetatik. Zakarrei "iñorkiña" esaten zioten. "Añarra", otea...

36. Txori eta hegaztiak

- **Erref:** LEZ-051/031
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:27:54. **Bukatu:** 00:29:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Inguruetan ibiltzen diren txori eta hegaztien izenak: zozoa, birigarroa, txantxagorria, errota-txoria (pareta-txoria), kaioak, hegabera (lehen neguan sartzen ziren, orain ez), gau-belea (mirua)...

37. Inguruetan ibiltzen diren piztiak

- **Erref:** LEZ-051/032
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:29:04. **Bukatu:** 00:30:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Inguruetan ibiltzen ziren basapiztiak: azeria, erbinudea...

38. Hondarra eta garai bateko portua

- **Erref:** LEZ-051/034
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:32:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Zenbaitek portutik hondarra hartzen zuten, ongarri moduan erabiltzeko. Berak ez du gogoratzen etxerako hondarra ekartzen zutenik. Garai batean portua noraino iristen zen azaltzen du.

39. Lehengo baserriko bizimodua

- **Erref:** LEZ-051/035
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:32:01. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garai bateko Lezoko baserriko bizimodua nolakoa zen kontatzen du. Lan gehiago egiten zen. Ez zen dirurik: jeneroarekin trukea egiten zen.

40. Industriak ingurugiroan eragindako kaltea

- **Erref:** LEZ-051/036
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:34:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Ingurugiroa

Laburpena:

Lantegiek baserriko bizimoduan izan duten eraginaz hitz egiten du. Ganadutarako bazka hautsez eginda, lantegien kearekin. Kutsadurak inguruko sagastietan izandako eragina du hizpide.

41. Ume denborako jostaketak

- **Erref:** LEZ-051/037
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:34:27. **Bukatu:** 00:36:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Ume garaiko jolasak: gorde-gordeketan, pospolo kaxarekin, kromoekin... Kartetan: zazpiko urrean, lapur jokoan...

42. Eskola kontuak

- **Erref:** LEZ-051/038
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:36:36. **Bukatu:** 00:37:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Lezoko herriko eskolan ibili zen Erramun. Lanean hasi bitartean, Erreteriarra joaten zen eskola partikularrak hartzera.

43. Jaietako bilerak

- **Erref:** LEZ-051/039
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:37:03. **Bukatu:** 00:37:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Aste barruan ez zen lagunekin ateratzen. Zortzian behin, Oiartzungo Txikierdiko bilerara joaten zen lagunekin. Beste bilera toki batzuk ere aipatzen ditu.

44. Lezoko estropadak

- **Erref:** LEZ-051/040
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:37:49. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:

Lezon estrapadak izaten zireneko kontuak. M. Arrillaga ibili zen patroil lanetan azkenekoz. A Coruñatik bandera ekarri zuten.

45. Gerrako oroitzapenak

- **Erref:** LEZ-051/042
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:39:17. **Bukatu:** 00:41:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Naparrak sartu zireneko azalpenak. Leihotetan koltxoak jarrita egon ziren baserri barruan. Soldadu joateko adina zuten gazteak Jaizkibel aldera joaten ziren ihesean. Erramunen anaiak zortzi egunean gordeta egon ziren Jaizkibelen. Gero, ordea, soldadu joan ziren.

46. Sarasolaerrekako hilketak

- **Erref:** LEZ-051/043
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:41:31. **Bukatu:** 00:42:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Sarasolaerrekako hilketei buruzko azalpenak.

47. Gerra ondorengo miseria

- **Erref:** LEZ-051/044
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:42:28. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ondorengo gabeziaz hitz egiten du. Baserritarrek uzta (babarruna) entregatu behar izaten zuten udaletxean. Errazionamendua. Ogi gogorra. Gosea.

48. Lesakara, artoa ehotzera

- **Erref:** LEZ-051/045
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:44:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ondorengo gabeziaz hitz egiten du. Lesakara joaten ziren, mendiz mendi astoarekin, artoa ehotzera.

49. Eskuzko errota txikia

- **Erref:** LEZ-051/046
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:44:18. **Bukatu:** 00:44:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ondorengo gabeziaz hitz egiten du. Lezon ez du ezagutu errotarik. Etxean eskuzko errota txiki bat zuten artoa txikitzeko. Jatekoa: taloa eta esnea.

50. Euskaraz egiteko debekua

- **Erref:** LEZ-051/047
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:44:44. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Gerra ondorenean, euskaraz hitz egitea debekatua zegoen, eta gaztelaniaz jakin ez. Eskolan 'Cara al Sol' abesten zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com